



## LARINGEKTOMIA OSOA (Zainketak eta gomendioak operazioaren ondoren)

- Behar duzun materiala emango dizugu, alta ematerakoan. Materiala bukatutakoan, leku hauetan lor dezakezu:
  - Familiako medikuarengana joanda:** gasak, xiringak eta gazur (suero) fisiologikoa.
  - Ortopediako dendetan eta Farmazietan:** lerre-zapiak, eskuilak, estoma-tapoiak, estoma-babestekoak, kanulak, Pobidona iodatua (Betadine®) eta lubrikatzaile hidrosolublea.
  - Kinkiladendetan:** zinta
- Erakunde hauen laguntza ere izango duzu: Espainiako Minbiziaren kontrako Elkartea, Arabako Laringektomizatuen Elkartea eta, bestalde, logopeden laguntza ere bai.

### GOMENDIOAK:

- Erreparaiezu kanulari erantsita dauden jariakinei, ea odolik, muki berde edo horiskarik... badagoen. Halako zerbait ikusiz gero, erreparatu estomari, eta gorrituta, urrututa, muki berde edo horiskekin, edo zauriren bat estoma inguruan ikusiz gero, infekzioa izan zenezake. Halakoetan egin behar duzuna da: termometroa jarri, ea sukarrak badaukazu, medikuarengana joan.
- Trakeostoma zapi, bufanda....batekin tapatuta eraman, hautsik edo gorputz arrotzik ez sartzeko.
- Kontu egin estomatik likidorik ez sartzeko.
- Kanulako barruko aldea behar den guztietan garbitu.
- Gogoan izan: ez erabili INOIZ lixibarik, kanula belztu dezake-eta.
- Kanula garbitzeko materiala horretarako bakarrik erabili.
- Kanula beti prest eduki behar da, behar denerako.
- Komeni da giroa bustia edukitzea. Horrela nekezago sortuko dira tapoiak, eta errazago hartuko duzu arnasa.
- Taporik sortuz gero, sartu gazur fisiologikoa xeringa baten bidez. Ez bada kanporatzen, kendu kanula, eta ekin berriro tapoia kanporatu arte. Kanporatu ondoren, lehortu ondo, eta kanula garbia jarri.

### NOLA ZAINDU ESTOMA ETA KANULA:

- Garrantzitsua da egunero larruazala garbitzea eta kanula egunero aldatzea.
- Oso garrantzitsua da zainketak hasi aurretik eskuak garbitzea.
- Horretarako materiala prestatu behar duzu.
- Ispilu aurrean jarri.
- Askatu edo moztu zinta, eta kanula kendu bi eskuekin.
- Gasa-paketea ireki, bi hartu, eta gazur fisiologikoarekin busti.
- Bustitako horiekin garbitu estoma, barrutik kanporako mugimendi zirkularrak eginez; egindakoan, bota gasak.
- Hartu beste bi gasa, eta ondo lehortu.
- Hartu beste bi gasa, bota pobidona iododuna (Betadine®), eta estomaren kanpoko aldetik pasatu. Arreta eduki barrura sar ez dadin, urra daiteke eta.
- Itxaron minutu bat lehertzeko.
- Hartu prestatuta izango duzun kanula, lerre-zapiarekin eta zintarekin batera, eta jarri.
- Lotu zinta lepotik

### EDUKI KANULA HURRENGORAKO PREST:

- Kanula zikinari kendu zita, gasa eta/edo lerre-zapia, eta bota.
- Utzi kanula ontzi batean, ur epeletan.
- Ondo garbitu kanula ura eta garbikari batekin. Kanpoko aldea espartzuarekin, eta barrukoa eskuilarekin, eta gero uretan pasatu.
- Sartu kazola batean, ur irakitan, eta 5 minutuan eduki irakiten.
- Zapi garbi batekin ondo lehortu, eta ontzitxo batean gorde.